

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

35/2019 Mozioa, urriaren 23koa, Estatu Batuek muga-zergak inposatzearen aurka

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko urriaren 23an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

35/2019 Mozioa, urriaren 23koa, Estatu Batuek muga-zergak inposatzearen aurka.

1. Arabako Batzar Nagusiek euren kezka eta erabateko gaitzespena agertzen dute Estatu Batuetako gobernuak ezarri dituen zerga-mugen arloko ezohiko neurriak direla-eta; Espainiako Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die, hortaz, kaltetutako merkataritza-interesak aldeztu ditzatela, bereziki Arabako Errioxako ardoei, Arabako Txakolinari eta Idiazabal gaztari dagokienez.

2. Arabako Batzar Nagusiek Espainiako Gobernuari eskatzen diote galdegin diezaiola Europako Batasunari berehala utz ditzala bertan behera ezohiko zerga-arau horiek, eta ireki dezala negoziazio-prozesu bat Europa eta Estatu Batuen arteko merkataritza-trukaketak errazten eta nahasten ez dituen akordio orekatu bat lortze aldera.

3. Arabako Batzar Nagusiek babestu egiten dituzte Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak inplikaturako sektoreetako ordezkariekin batera hartutako neurriak, bai Estatu Batuetako merkatura egindako esportazioei eusteko, barne merkatua sustatzeko edo merkatu berriak bilatzekoak, bai eragindako kalteak konpontzeko laguntza publiko eta inbertsio moduan hartutakoak.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 23a

Presidente

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA